

## **ESKOLARTEKO DANTZARI EGUNA** **EGITARAUKO DANTZEN JATORRIA**

### **1)- Dantzari dantza (agintariena, ezpata joko txikia, banango, txotxongilo).**

**Durangon** kokatu behar doguz dantza honeen jatorria, XVI. Gizaldian, eta, dakigunez, Corpus Christi egunean egiten ziren. Dantzan egiteko eskubidea eukitearren, ordaindu egin behar izaten eben dantzariak eta, normalean, kofradia edo ofizioetako gremioetakoak izaten ziren.

Ikusten danek, ezpatak daroek eskuan. Ezpata dantzari sinbologia desberdinak emon jakoz: batetik borroka antzezpena dala, bestetik gazteen inimizia dantza; kasu batzuetan errementarien gremioko dantzak dirala aipatu izan da.

Guillermo Humboldt alemaniar antropologoak haxe inoan 1801 urtean: “zortzi dantzari egiten dabez dantza honeek eta erdian bederatzigarren bat ipinten da bandera bategaz”. XX. Mendean eta gaur egun zortziko taldea osotzen da, banderaduna barru.

### **2).- Makil I, makil II,**

Orain **Lapurdira goaz**, kandelario sasoian egiten diren irri-dantzekin,.

Gaur egun Uztaritzen eta Ezpeletan mantentzen dira dantza honeek. Etxerik-etxe eta herririk-herririk dabiz dantza-taldeak eta ohitura danek, taldeagaz batera hiru personaje ibiltzen dira: Kotilun gorri, Ponpiera eta Besta Gorri. Aurpegia tapauta daukie eta diru-eske doaz taldearen izenean.

Guk diru-eskerik egiteko ez, baina dantza agerpenerako bai erabilten doguz.

**Irri dantzak edo joko dantzak.-** Irri-dantzak edo joko-dantzak, geure herrietan, soinuaren erritmoaz egindako jokoak ditugu. Euskal Herri guztian zabaldurik dagozan arren, Nafarroa aldean biziagoak eta ugariagoak ditugu gaur egun.

**Txulalai.-** Hurrengo atala **Arabako errioxari dagokio**. Arabara goaz Txulalai dantzeagaz. Dantza hau Paganos herrian dauka jatorria, Biasteritik hur eta ohitureak agintzen dauanez, otsailaren 3an egiten da, San Blasen omenez.

Dantza oso herrikoia da, herri osoak dantzatzekoa, ume zein heldu. Erromeria dantza bat dugu azken baten: alaitasuna adierazten deusku eta herritarrek harremanak izateko modu bat, eskuak obatu eta elkarri eperdikoak emonda bada be.

**Zapatain dantza.- Barriro Lapurdira** goaz ba. Zapatain dantza, Lapurdiko karnabelateko dantza bat dogu, joko-dantza bat eta zapatariaren ofizioa azaltzeko erabilia. Bi zati daukaz: bata, dantza zatia eta bestea, ofizioaren imitazioa, abesti bategaz lagunduta.

**San Petrike.-** Euskal Herrian zehar, **Nafarroa dogu hurrengo geltokia**. Oraingo dantzea, irri-dantza edota joko-dantza bat dogu. Ospakizunetan barre eta algara egiteko bidea. Nafarroan mantendu dira bizi-bizirik maila herrikoian. San Petrike dantza hau Baztango aranean kokatu behar dogu.

### **3).- Gipuzkoako makil txiki**

Oraingoan Gipuzkoako lurraldearen txanda dogu eta izen berezia hartzen daben dantza batzuekaz: **TROKEO DANTZAK**. Zergatik izen hau, ba, dantza honeetan dantzariak lekuz aldatu egiten direlako, bikoteka edo laukoteka. Taldeak zortzikoak edo hamabikoak dira.

Dantza honeen lehenengo notiziak XVII. gizaldian agertzen dira.

Antza danez, arkuak erabiltzea ez zen ohizkoa eta sasoi baten egiten ziren dantzetan sartutako elementu bat izango litzateke. Batzuk dinoenez, Gipuzkoako herri askotara etorten ziren Valentziako dantza taldeetatik hartutako elementu bati zango litzateke arkua.

**Euzko dantza.-** Dantza guztiak ez dira zertan zaharrak izan behar. Hurrengo dantza, **EUSKO DANTZA**, esan daiteke asmakizun koreografiko modernoa dala, XX. Mendeko laugarren hamarkadan sortutakoa, baina bere oinarria arin-arinaren erritmoa dogu.

Beraz, gure tradiziozko dantza bat, arrin-arina, modu koregrafikoan agertzea dauka helburu.

**Arku-dantza.-** Euskal Herrian zehar ibilbidea eginda, barriro gatoz Bizkaiko lurraldera. Durangora hain zuzen. Bertan, Durangon kokatu behar doguz hurrengo dantzak ARKU DANTZA ETA ZINTA DANTZA edo DOMINGILLOA

**Zinta dantza.-** 1853an Antoine D'Abadie Iparraldeko euskalzaleak, Euskal Jaiak (Fiestas Euskaras) ipini ebazan martxan Urruñan. Durangon 1.886an egin ziren Euskal Jaietan, Gorulariak deituriko dantza multzoa egin zan, hiru dantzaz osotua: LINO LANARI BURUZKO ESTANPA, ARKU DANTZA ETA ZINTA DANTZA edo DOMINGILLOA. Azken biak ZINTA DANTZA ETA DOMINGILIO ikusiko doguz. Lehenago arku dantza neskena zan eta domingiloa mutilena; 1886a geroztik, neska-mutilek egiten dabez dantza biak.

#### **4).- Amaiera (Fandangoa, arin-arina eta Benafarroako martxa)**

Fandangoa eta arin-arinaren lehenengo erreferentzia idatzia 1800ekoa da, Guillermo Humboldt antropologoak egindakoa. Durangon ikusitako auresku dantza bat azaltzen dauanean, aureskua amaitzeko egiten ziren biribilketa, fandangoa eta arin-arina deskribatzen dauz. Honela esaten dau: “Cada cual corre con todas sus fuerzas y a buscar una muchacha a su gusto; se forma una hilera como la de antes, pero ahora todo es movimiento, toros saltan, se bambolean y dan tirones de aquí y de allá, y danzarines y danzarinas intentan tropezarse unos a otros a la manera már ruda dos a dos”.

**Benafarroako martxa.- Benafarroara goaz.** Carnaval sasoiaren egiten den dantza bategaz aurtengoari amaiera emateko modu galanta: BENAFARROAKO MARTXA.